



**EUSKADIKO TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN EKIPAMENDU PERTSONALAREN
ETA ETXEKO EKIPAMENDUAREN AZPISEKTOREEI SOSTENGUA EMATEKO
LAGUNTZA-PROGRAMAREN INGURUKO OHIKO-GALDERAK**

1.- Nola eta non aurkeztu dezaket laguntzaren eskaera?

Bitarteko elektronikoen bidez soilik aurkeztu ahal izango da eta telematikoki; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez (<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1112902>). Eskaerak aurkezteko beharrezkoa izango da identifikazio elektronikoa erabiltzea (<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>).

2.- Nori zuzenduta daude?

Egoitza soziala eta fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan duten norberaren konturako langileei edo autonomoei, ondasun-erkidegoei, sozietate zibilei, mikroenpresei eta enpresa txikiei, baldin eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafe hauen barruan sartzen badira:

651. taldea. Ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien, zapaten, larruen eta larrugintza-gaien txikizkako merkataritza.

651.1 epigrafea.–Etixerako ehungintza-gaien eta jantzi-gaien, alfonbren nahiz antzekoen eta tapizgintza-gaien txikizkako merkataritza.

651.2 epigrafea.–Gorputzerako nahiz bururako mota guztietako jantzien txikizkako merkataritza.

651.3 epigrafea.–Lentzeriaren eta kortseteriaren txikizkako merkataritza.

651.4 epigrafea.–Mertzeriako eta paketeriako gaien txikizkako merkataritza.

651.5 epigrafea.–Jantzi berezien txikizkako merkataritza.

651.6 epigrafea.–Zapaten, larruzko produktuen eta imitaziozkoen nahiz ordeko ekoizkinen, gerrikoen, diru-zorroen, poltsen, maleten eta, oro har, bidaiatzeko gauzen txikizkako merkataritza.

651.7 epigrafea.–Larrukigintzako jantzien txikizkako merkataritza.

652. taldea. Drogeriako eta garbiketako gaien txikizkako merkataritza; mota guztietako lurrinena eta kosmetikoena; eta, oro har, kimikako ekoizkinena.

652.2 epigrafea.–Drogeriako, lurringintzako eta kosmetikako produktuen, garbiketako gaien, pinturen, bernizen, disolbatzaileen, paperen eta dekoraziorako beste ekoizkin batzuen eta kimikako ekoizkinen txikizkako merkataritza.

652.3 epigrafea.–Lurringintzako eta kosmetikako ekoizkinen eta norbere higienarako eta garbiketarako gaien txikizkako merkataritza.

653. taldea. Etxeko ekipamenduen eta eraikuntzarako gaien txikizkako merkataritza.

653.1 epigrafea.–Altzarien txikizkako merkataritza (bulegokoak ezik).

653.2 epigrafea.–Material eta aparatu elektrikoen, elektronikoen eta etxetresna elektrikoen, argindarraz besteko energia mota batez eragiten diren etxeko bestelako aparatuen eta sukaldeko altzarien txikizkako merkataritza.

653.3 epigrafea.–Etxeko hornidurarako, burdindegiko, apaindurako, oparitarako edo erakartzeko gaien txikizkako merkataritza (erakartzeko gaiak, imitaziozko bitxiak eta etxetresna elektriko txikiak barne).

653.4 epigrafea.–Eraikuntzako materialen eta saneamenduko gaien eta altzarien txikizkako merkataritza.

653.5 epigrafea.–Ateen, leihoen eta pertsianen, molduren eta markoen, oholtzen eta parket-mosaikoen, saski- eta kortxo-gaien txikizkako merkataritza.

653.6 epigrafea.–Brikolajeko gaien txikizkako merkataritza.

653.9 epigrafea.–Bestelako ataletan bildu ez diren etxeko ekipamendurako gaien txikizkako merkataritza.

97. taldea. Zerbitzu pertsonalak.

975. epigrafea.– Markogintza-zerbitzuak.

3. – Aginduaren I. eranskinean jasotako EJZren epigrafeetako batean egoteaz gain, zein baldintza osagarri bete behar ditut 2022ko otsailaren 24a baino lehen?

- a) Norberaren konturako langilea edo autonomoa, ondasun-erkidegoa, sozietate zibila, mikroenpresa edo enpresa txikia izatea.
- b) Enpresa-jarduera egoitza soziala eta fiskala EAEn izatea eta bertan kokatzea laguntzaren xede den merkataritza-establezimendua.
- c) Norberaren konturako langileen edo autonomoen kasuan, Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea.
- d) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan benetan alta emanda egotea.
- e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Ondasun-erkidegoen edo sozietate zibilen kasuan, horietan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guzti-guztiak hartuko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte aurretik ezarritako betekizun eta baldintzak. Nolanahi ere, taldearen ordezkari bat izendatu beharko da, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalmen nahikoa izango duena.

4.- Laguntza ordezkariaren bidez eskatuz gero, zein dokumentazio osagarri aurkeztu behar dut?

Eskaerarekin batera, «Borondatezko legezko ordezkari emateko inprimaki normalizatua» aurkeztu behar da (<https://www.euskadi.eus/ordezkaritza-ematea>).

Pertsona juridikoek, gainera, ordezkari-ahalordearen kopia edo beste pertsona bati ordezkari ematen dion erakundearen legezko ordezkari gisa ahalorde-emailea legitimatzen duen zuzenbidean baliozko den edozein agiri erantsi beharko dute.

Era berean, ordezkariak (fisikoak edo juridikoak) identifikazio elektronikorako onartutako bitarteko bat izan beharko du.

5.- Nola eutsi behar diet gutxienez laguntzaren onuradun izateko eskatzen diren baldintzei?

Eskakizunak gutxienez eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo sei hilabeteetan mantendu beharko dira, hau da, 2023ko urtarrilaren 28ra arte.

6.- Zenbat eskabide aurkez ditzaket?

Eskabideak merkataritza-establezimenduaren arabera aurkeztuko dira.

Merkataritza-gune bat baino gehiago izanez gero, eskabide bat establezimendu bakoitzeko.

7.- Zein da laguntza eskatu ahal izateko epea?

Epea 30 egun naturalekoa da. Ekainaren 27ko 9:00etatik 2022ko uztailaren 27ko 08:59,99 arte.

8.- Eskabideaz gain, zer beste dokumentu aurkeztu behar ditut?

Kontuan izan behar da eskabidea oso-osorik bete behar dela, eta eskabidearekin batera honako hauek bakarrik aurkeztu behar direla, 2022ko otsailaren 24a baino lehen:

- 1.-Kotizazio-kontuaren kode baten lan-bizitzari buruzko txostena, eta langile autonomoaren kasuan, lan-bizitzari buruzko txostena.
- 2.-Enpresa eratzeko eskriturak eta ondorengo aldaketak pertsona juridikoei.
- 3.-Eratze-kontratua, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak.
- 4.-Borondatezko legezko ordezkaritza inprimaki normalizatua, ordezkaritza eman nahi bada eta Ordezkarien Erregistro Elektronikoa erabili nahi ez bada.
- 5.-Erantzukizunpeko adierazpena.

9.- Zein da laguntzen zenbatekoa?

2022ko otsailaren 24a baino lehen merkataritza-establezimenduan alta emandako langileen kopuruaren arabera ezartzen da zenbatekoa:

- 1-9 langile dituzten establezimenduak: 2.000 euro
- 10 langile edo gehiagoko establezimenduak: 3.000 euro

Langile bera saltoki bakar bati atxikitzea baino ez da onartuko.

10.- Langilerik ez badut, laguntza jasotzeko eskubidea al dut?

Bai, langileen zenbaketan autonomoak eta soldatapekoak sartuko dira, 2022ko otsailaren 24a baino lehenagoko lanaldia edo lan-egoera alde batera utzita.

11.- Itzuli beharreko laguntza al da?

Ez. Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza da. Zuzeneko laguntza.

12.- Nire udalerriak, probintziak, beste laguntza baterako deialdia egin du.

Eska dezaket diru-laguntza hau ematen badidate?

Bai. Bateragarria da administrazio publikoek edo/eta erakunde pribatuek helburu bererako emandako beste edozein diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin, betiere gainfinantzaketarik ez badago.

13.- Nola komunikatu laguntza kudeatzen duen administrazioarekin?

Eskabidearen ondorengo izapideak (jakinarazpenak, errekerimenduak, dokumentazioa aurkeztea eta prozeduran inplikaturako gainerako izapideak) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoen «nire karpeta» aplikazioaren bidez bakarrik egingo dira (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>).

14.- Dokumentazio gehigarria aurkeztea.

Erakunde eskatzaileak prozeduraren edozein unetan aurkeztutako nahitaezko dokumentazioaz gain beste agiri batzuk ere aurkez ditzake, bai errekerimendua jaso badu, bai borondatez egin badu, hala nola aitortutako edozein datu argitzen duen memoria bat. Kontuan izan behar da, eskabidea aurkeztu ondoren dokumentazioa aurkezten bada, eskabidea osorik aurkezteko data azken dokumentua aurkeztu den eguna izango dela eta hori zuzena dela.

15.- Litekeena al da laguntzara bideratutako baliabide ekonomikoak agortzea eta laguntza ez iristea?

Baliteke baliabide ekonomikoak agortzea. Kasu horretan, laguntza berriak emateari utziko litzaioke, eta ezetsi egingo lirateke ebazteke dauden eskabideak. Hori dela eta, Merkataritzako zuzendariak, organo kudeatzaile gisa, kredituaren agortzearen berri emango du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den ebazpen baten bidez.

16.- Nola dakit zer eman zaidan laguntza?

Laguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena banan-banan egingo da, nire karpeta bidez.

17.- Administrazioak zein epe du laguntza ebazteko?

Merkataritza zuzendariak eskabideak hurrenez hurren ebartziko ditu, gehienez ere 3 hilabeteko epean, eskabidea osatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita – Bai formulazio-egunetik, bai zuzenketa-egunetik –, eta aurkeztutako diru-laguntza eskabide bakoitzari buruzko ebazpen arrazoitua emango du.

Epe barruan ebatzi ezean, pertsona edo erakunde interesdunak bere asmoa ezetsitzat jo ahal izango du, organo eskudunak esanbidezko ebazpena emateko duen betebeharrari kalterik egin gabe.

18.- Administrazioak egiazta al diezadake laguntza eskatu dudan jarduera ekonomikoan jarraitzera eta aritzera behartzen nauen gutxieneko aldia (6 hilabete) igaro ondoren?

Bai, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egokitzen jotzen dituen ikuskapenak eta egiaztapenak egin ahal izango ditu edozein unetan, eta pertsona edo erakunde onuradunek eskatzen zaien informazio osagarri guztia eman beharko dute.

19.- Zer baldintza bete behar ditu laguntza eman ondoren?

- a) Jardueran gutxienez sei hilabetez jarraian alta emanda egotea, laguntza eskatzeko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.
- b) Jardueran gutxienez segidako sei hilabetez aritzea, laguntza eskatzeko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.
- c) Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, onuradunari diru-laguntza eman zaiola jakinarazten dion jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean onuradunak diru-laguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da.
- d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari beren eginkizunetan dihardutela deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzei buruz eskatzen duten informazioa ematea.
- e) Enplegu-mailari eustea, laguntza eman eta 6 hilabetez.

20.- Nola ordaintzen da diru-laguntza?

Ordainketa bakarrean. Ez da inolako ordainketarik egingo erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu, edo itzulketa-ebazpen bidez zordun bada.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura amaitzearen mende egongo da ordainketa.